

## Gure Neguko Eskeak

Bostagarren maila A taldekoak  
zuzendaritzan kantari  
eskale gatoz eta nahi dogu  
kaso egitea guri.

Egunon Kepa eta Mari Carmen  
azterketa asko dago  
beste gauza bat eta etxerako  
bidali lan gutxiago.

Sareak jarri porterietan  
barruko futbol zelaian  
ta eskolatik kanpo joan  
patio ta jantoki orduan.

Bertso hau dogu jantokikoentzat  
gaiztoak dira gurekin  
guk begirale jatorragoak nahi  
ta janari ona egin

Futbol zelaia urez beteta  
ta ezin dogu jolastu  
ta zergaitik ez Bike-Park zabaldu.  
parke gorrian kokatu.

Ostirealetan gure mobilak  
eta tabletak ekarri  
mesedez gatoz eskatzen hona  
eta Play Station jarri.